

Gaur egun, burututako **eragiketa guztien % 44** bulegoak ez diren beste kanal batzuetan osatzen da

Kutxabanken aurreikuspenek diotenez, online kontratazioaren % 50 gaindituko du mailegu pertsonaletan

- **Bezeroen artean informazio-kanpaina zabala abiarazi du, maileguak formalizatzeko modu azkar, erraz eta seguru honen abantailak ezagutarazteko**
- **Bankuaren jarduera digitalak hazkunde esponentziala izan du azken hilabeteetan, eta hirukoiztu egin da online kanalen bidezko banku-produktu eta -zerbitzuen kontratazioa**

2021eko martxoak 10. Kontsumorako maileguen dibisioaren ardura duen Kutxabank Kredit-ek sinatutako **eragiketen % 50 baino gehiago** erakundearen Online Bankaren eta Banka Mugikorraren bidez formalizatzea da Kutxabanken asmoa.

Udaberria gertu dagoela-eta, Taldeak abian jarri duen **informazio-kanpaina zabalaren** helburu nagusietako bat da. Kanpaina berriak mesede egingo dioten kontratazio-baldintza ekarriko ditu, kreditua arduraz emateko bere jarrera tradizionalari uko egin gabe, **% 1,2tik beherako berankortasuna** baitu.

Gogoratu dezagun, gaur egun, sinatutako mailegu pertsonalen **% 44** baino gehiago bulegoak ez diren beste kanal batzuetan formalizatzen direla, eta azken hilabeteetan Bankuaren jarduera digitalak inoizko hazkunderik handiena izan duela.

Izan ere, salmenta digitalak hirukoiztu egin dira, sarbideek % 40 egin dute gora, eta telefono mugikorraren erabilerak, Kutxabanken banku digitalera konektatzeko, gero eta garrantzi handiagoa hartu du urruneko gainerako gailuen aldean.

Ingurune hori aukera bat da Kutxabank Kredit enpresarentzat, urrutiko kontratazioa hobetzeko prozesuetan aurrera egiten jarraitzeko, mailegu pertsonalak formalizatzeko modu azkar, erraz eta segurua baita.

Hori dela eta, posta elektronikoz eta 'push' jakinarazpenen bidez, **270.000 komunikazio** pertsonalizatu baino gehiago bidaliko dizkie bezeroei. Komunikazio horietan, Kutxabanken 'app-ak' (Bankuko erabiltzaileek gogokoen duten kanala) zer hobekuntza ekarri dituen

jakinaraziko die, esaterako finantzatu nahi den eragiketa mota hautatzeko edo telefono mugikorraren bidez kontrata daitezkeen produktu gehiago eskuratzeko.

Kontsumorako maileguen katalogo zabala du Kutxabankek, eta pertsona bakoitzaren beharretara egokitzen da. 'Zero mailegua' kosturik gabeko kreditua da, hau da, ez du irekierako kosturik, ezta ezeztatzekorik ere. Beste kreditu batzuek helburu jakina dute, eta interes-tasa oso lehiakorra ere bai, hala nola gehien eskatzen direnak: autoa erosteko mailegua edo etxea eraberritzekoa. Era berean, zenbait 'kreditu berde' ere baditu, energiari dagokionez eraginkorrak diren autoak erosteko, etxean berrikuntzak egiteko edo kontsumo txikiko etxetresna elektrikoak erosteko.